

# Akelarre kutsua ekainez

Ekainean, eguzkiak bere zikloaren goiak hartzen eta era berean igora ilargibetera hurbiltzen delarik, Naturaren misterioen mende zen aintzinako gizarteak horren inguruan bildu zituen goxetarik ez ezik sinetskerak ere. Naturaren misteriozko gertakizunetan kezkatzen zen eta ideiak hortara bildu zituen, gizonaren ahalmenen gainetik zegoen zerbaitekin sinestera arte. Eta milaka urteetan erabilitako uestek ez zituen gizonak bat batean baztertuko.

Gaur egun, sineskera zahar haiek utzitako aztarnak baizik ez ditugu ezagutzen eta Naturaren fenomenoak, eguzki eta ilargiaren zikloak, zientifikoki ezagutera iritsi garen garaian, aintzinako denboretatik datorzigen sinismenak heurak dituko misteriozatuak, gizonak nondik nondago goxetak erabili zituen ikerketarako besterik ez badira ere. Bilketarik egina da hortaz, eta horien arabera aztertutarik ere bai. Baina, hala ere, bat batean zein bestean, beldurrak zaitzuen zenbait ziritu bete beharzeok eta inoiz, bete ezinezkorik ere bai.

Gaxetxoa nintzela, behin joan nintzen ekaineko San Joan jaiez Gorbea mendira zenbait egun iragortera, eta San Joan berpera gua Zeaururiko ostatu batean egiteko; zeren garai hartan Eibartik Lemoara trenez eta handik Zeaururira tranbiáz joaten bai ginen. Azkuek **Euskalerraren Yakintza** (lehen tomoko 307. orr.) obran aipatzen duen ipinatarrik ez genuen aurkitu Gorbeiera ortozik igotzen, handik eguzkiaren intera ikusteko. Bai ordea goizean usandun belarrak etxera ekartzeko. Baita ere, mutikolako berpera gauean eguna luntzeaz sororik soro lasterziz oihuka: "San Juan, artuek eta garixek, gorde, gorde! Sorgiñek eta lapurrek erre, erre!" Gero, mutiko talde guziki bilduko ziren herriko plazan eta han metaturik zuten egur eta tresna zaharrei zuziak sin eman eta bere biran kantatu. Sina zerbaik guttizen zenean bere gaineik jautsua hasiko ziren gutzia suntuatu arte, maiz lehenago oihu bera eginez; arto ta gariak gorde eta sorginak erre!

Handik zenbait urtera J.M. Barandiaran **El Mundo en la mente popular vasca** deritzan obraren bigarren tomoan (1961ean argitaratua) Berrizko Murgoitio auzoko aipamenak bat irakurri nuen "irunzpeuek" sendatzeko ur edateaz. San Joan ermita ondoan zegoen iturri batean edan behar zen, San Joan goizez eguzkiaren irtieran. Horren ikerketa osatu nahirik jo nuen behin Murgoitioa eta 1900

urtean jaioa zen Pedro Zelaieta jaunarekin elkarriketan jarri nintzen, auzokoez gizonari adituena bezala zuten ez aintzinako oihueri buruz, eta hara hemen ahoz aho zer jaso nion:

"Gure denboran San Juen bisperan, Donielatxa imintzen zan San Juen ermitaren onduen. Iluntzian, eguzkia sartu ondorean, su haundiak ixotzen ziran inguru berean eta txikiagoak solotan. Suaren inguruan dantzak eta brinkoak eta suan gaineik saltokak ere bai, honela kantatuz:  
**San Juen, San Juen,**  
**besterik ez dogo guen,**  
**arrautza bi kolkuen**  
**beste bi altzen;**  
**sorgiñek eta lapurrek,**  
**erre, erre!**  
**Artuek eta garixek,**  
**gorde, gorde!**  
**Biba San Juen!**  
**Bixer da San Juen.**

Biharamun goizean —San Juen goizean—, egunsentirako itzartu, eta baraurik, mezatara baino lehen, ermitatik urrian dagoen iturrian hiru basokada ur edan. Irunzpeuek osatzeko ona zala-ta.

Etxe-atetean erramak iminten dira, oin-diño-be; leixarra edo elorrixe. Baina, leixar edo elorri horreik errekatzarurik pasatu bakue izan behar dau (ekartzten dauenak ekartzan ez deiala urrik gaineik pasatu).

Eguerdi aldiari, aintzina, Murgoitiozko Korradiako mutikak aurrekua egiten ebien. Orain, Berrizko dantzariak ekarten dira.

Donielatxa igoten dabena sartuta izaten da, gauzaz edo diruz. Donielatxa lehepago txopia izaten zen; orain piñua.

Arratsaldetan erromeria haundia, gabera arteino."

Hori da Pedro Zelaietak kontatutako gutzia eta bertatik ikus genezake Berrizko (Bizkaia) Murgoitio auzoan gure egunokate gorde dela eguzkia goren aurkitzen den urtemugaren ospakuntzako súa, ura eta zahar-tzean oinarritzen diren ritoak.

Baina, bestalde, kantak, sorgin eta gaizkileen erretzeaz aipatzen du. Gauziona gorde eta txarra erre. Berrikuntzako legea.

Nonbait, udaberriko kosmogoniari lotuak daude, edo hobeto esan, horiek ekainez hartzen dituzte beren goiak, eguzkiarenakin. Eta bada hor nolabaiteko lotura bat 1569 Iruinean zenbait persona epaitu ziren Burgi

(Erronkari) herrian San Juan gauez akelarre bat izan zelako. 1609an, lehenengo Nafarroako eta gero Frantsiako errege zen Enrique IV.ak, kalbindar izatetik katolikora pasatu zenak, "Paris-ek meza bat balio duela" esanaz, Piarres lanke ingori zuten Lapurdia epailari eta amaika hilketa egin zuten juridikoki. Bere idazkietan jasotzen deitu. Urrunak sorginek laguntza beretzeko ziola eta Deaburuari eta ekainaren 20tik 22ra bitartean izan omen zuten Jaingoan auzia eta irabazletzat baliatu zuela bere burua. Euskaldunok basatiak omen ginen, ez frantsesak eta ez espainolak eta horregatik ez genezula gizatasuneko ohihurtentzat begiramenik; sabbat gau pasazko jairik handienak Larren mendiko Saint-Espirit ermitaren inguruan ez ezik bere barnean ere egiten omen zituzten, baina baita ere Urdezubiko elizan.

Logroño-ko Inkisizio Santuko Tribunalak ere holakorik egin zuen, 1610. urtean San Juan gauez Zugarramurdi akelarrea ospatu zutelako, J. Caro Barojak bere "La vida rural en Vera de Bidasoa" lanean dakarrenez. Gauza bere apaituko digu San Joanetako akelarre **Brujeria vasca** (1975ean Txertoak argitaratua) libururaren 103. orrialdean. Salazar y Frías oharatu zen Logroño-ko epaiketetan erdera guti edo euskara baizik eztekinak gaztelaz, epaitzen zirela eta sorgin kontuan han ez zegoela ezer garbirik. Horregatik zion "mejor era no menallo"; baina beste batuk sorginen ihizan zuziten zituzten beren buruak beste zerbaitekarako eta ongi zertorikien akerragan erreak zamateza.

Auziarieta ez erregokotan ere, bereziki Donibate bezperako ospakuntzetan, sinemen zaharrenek aztarnak baizik ez ziren. Hortik hartzen zuten akelarren kutsua ekain. Herrian nolabait errotuak zeuden sinetskeretako dugu sorginkeria; horregatik, mitologiako beste jaimekietatik oso berezia dugu, herria berak partaidetza izan duenez.

**JUAN SAN MARTIN**

*En la vida urbana de nuestra mocedad apenas nos llamaba la atención el sentido ritual y el sabor de akelarre la hoguera de San Juan, tan estrechamente ligada al solsticio de verano. Fue en Ceñuri (Vizcaya), al pie del monte Gorbea, donde cuenta Azkue que del barrio Ipiña del mismo ascenden descensos en la madrugada de San Juan a la cumbre de dicha montaña para presenciar la salida del sol; costumbre que yo no llegué a conocer,*

*pero si el de recorrer las heredades con las antorchas encendidas para acabar con brujas y maleficios y a continuación celebrar un baile ritual en la plaza del pueblo en torno a la hoguera. En San Juan de Murguito (en Bermeo, Vizcaya) recoge la tradición sanjuanera de los ritos en torno al fuego, al agua y el árbol, así como recoge en el texto en vascuense, donde se que ma de brujas se menciona en una estrofa que viene a ser una de tantas variantes que conocien en gran parte de nuestra geografía.*

*Parece ser que la estación de primavera es más propicia para la celebración de akelarres que tal vez uno de los puntos culminantes viene a ser la víspera de San Juan, coincidiendo con el solsticio y el plenilunio. El juicio por brujas celebrado en Pamplona en 1569 fue debido a un akelarre en Burgui (Roncal) la víspera de San Juan. Pero, cuando en rey Enrique IV. que de calvinista pasó a católico con aquel año que "Paris bien vale una misa" y como tal, un converso necesitaba su chivo expiatorio, mandó a Pierre de Lancre, en 1609, a Labour, a la caza de brujas y comete un sínfin de asesinatos jurídicos. En sus escritos consta que los brujos de Urrugne solicitaron protección especial de Demonio y éste dejó de aparecer en los conciliabulos, allí por el 20 de junio de 1609 y volvió hasta el día 22. Había estado platicando con Dios, al que llamaba Janiko, para librarse de todo mal y que había salido vencedor. El mismo juicio del tribunal de la Inquisición de Logroño fue a causa del Akelarre celebrado en Zugarramurdi la noche de San Juan del año 1610, no lejos de donde un año antes P.*

*Lancre señalara que el sabbat se hacía en el monte La Rhune (Larrai), a veces en el interior de la capilla de Saint-Espirit que allí existió, así como en la iglesia de Urdax. El inquisidor Salazar y Frías se percató de la inocencia de las personas que eran juzgadas en conciliabulos cuando apenas conocían esta lengua, por tratarse de euskaldunes. Tampoco creía mucho en la brujería y dijo que el asunto "mejor era no menallo".*

*La brujería tuvo fuerte incidencia en la vida social, a diferencia de otros mitos que se contemplaban a través de las leyendas que iban más allá de la pura narrativa oral, y en el fondo, lo único que parece estar claro es que nos vienen de las primitivas creencias paganas que en tiempos estuvieron muy arraigadas en el pueblo.*

## Ledesma eta Guridi

Aurtongo mendeurrenen artean Nicolas Ledesma Garcia organulariarena espaltzen dugu. Bilbon 1883.eko Urtailearen 4an hil baitzen 92 urtedun. Aragoako Griselen jaioa zen eta Tarazonan Martintxike, Gispert eta Ferreñac organulariaren lehen ikasketak egin ondoren, Borjako Kolegiatan organulari lanposturako hautatu zuten hamasei urte zituelarik. Aragoako hurreldeak utzita Tafallara etorri zen hamazortzi urtekin 1809an bere bizi gutzirako bizimodua Euskal Herrian finkatuz. Handik Bilbokoa Santiago Basilikara iritsi zen 1830an, Kapel Maisu eta Organulari lanak betetzeko lehiaketa bat irabazi ondoren.

Erretiratzeko asmoa heldu zitzaionean, 1857an, Luis Bidaola Mugika subinariaren eskutian utzi zuen lanpostua. Segurara zen organulari hau, Tafallan jaioakoa Zelestina Ledesmarekin ezkondua. Baina 1865an Eibarrera joan zen Bidaola eta 74 urtekin berriz arduratu zen gure Ledesma Santiagoko eginkizunetan, 1867an Jose Antonio Santesteban donostiarra organulari hautatua izan zen arterarian. Santiagoko zegoen organo zaharra berrituz nahi ez zutelako, atxakia honekin utzi zuen Santestebanek bertan behera bere tratua eta hutsunea betetzeko Tolosan zegoen organularia, Candido Aguayo, ekarri zuten Santiagoko Basilikara. Honek ere 1870an lana utzi zuenez gero, hirugarren aldez azaldu zen Ledesma organulari gisan 1882.era, azken urteetan Jose Luis Anson eta Aureliano Valle laguntzaile zituelarik. Hurrengo urtean hil zen musikari borondatetsu eta trebe hau, hainbat urtean zehar Bilbokoa musika giroa Basilikako lanarekin eta berak sortutako Akademiarekin berbizitu eta sendotu zuena.

Jesus Guridi ospetsuaren berritona izan zen Nicolas Ledesma genealogi zuhaitz honetan ikus dezakegunez:



Zelestina Ledesma Anziosa, Nicolas Ledesmarekin alaba, Luis Bidaola Segurako musikariarekin ezkondu zen. Biak ziren musikoko, senarra organularia, ikusi dugunez, eta pianojolea emaztea, aitagandik ikasketak hartu zituenoa noski. Luis eta Zelestina senar-emazteen alaba, Trinidad Bidaola Ledesma, Jesus Guridiren ama izan zen. Beraz berritona, aitona eta amonaren adarretik bazetorkion Guridiri musikazko ondoretasuna. Nafarroatik eta Gipuzkoatik zertorikola gasteiztarri musikaren zain hori aitortzen dute Guridiren biografiak. Eta benetan-kontutan hartzeko da amaren zainetik zertorkiona. Beste lotura bat era aipatu behar da: Guridiren berritona eta aitona, biak izan ziren Bilbon Santiago Basilikako organulariak, eta Guridi bera ere eleiza berberetan organularia izan zen.

Baina aitarean adarretik ere bazetorkion Guridiri musikazko ondoretasuna. Lorenzo Guridi Area Gernikan jaioa zen, Arbolaren ondoan zegoen ostatuan, Franzisko Xabier Guridi, Lorenzoren aita eta Guridiren aitona; Bizkaiko Batzarriedek ostaten ziren etxean ostataria baitzen. Lorenzo organularia eta

bibolinista zen; Bilbokoa Arriaga antzokian hainbat aldiz bibolina jo zuen. Eta aitona ere organularia eta klabezinista zen. Franzisko Xabier Guridi Arrasaten jaioa zen eta Gernikara bizitzera etortria, hemengo Andra Mari eta San Juan parrokietan klabezina eta organu josten zuen, nik dakidanez, 1829.etik 1841.era. Beraz, aitarean zainetik ere bazetorkion Jesus Guridiri musika sena. Musikuten sendia izan zen, hain zuzen, Ledesma-Guriditarrina.

Jesus Guridi Bidaola Gasteizen jaio zen 1886.eko Irailaren 25an. Lorenzoren seme gastezina zen, lehenago jaio baitziren Gasteizen Jose Benedicto (1878), Lorenzo Joakin (1879) eta Maria Antonia Modesta (1882), Tames jaunaren alarguna azken hau, Donatien bizi izan zena.

Hiru urte buru beteko diria Jesus jaio zentetik chun urte eta mendeuren hau handiki ospatu beharko du Euskal Herriak, gure musikariarietarik handienetarik bat dugulako eta ikusi dugunez, Euskal Herri osoan sustatutako zegoelako bere familia: arabarra zen Guridit Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaiaren sendiko sustraiak. Eta lurralde guzti hauek

musika xurgatu zuten Jesussek euskal kutsua bere lan osari emateko.

Gernikara, aitarean herria, etorri zen Gernikara Guridi hainbat eginkizunetara: Santimamiñe leiza berak aurkitu zuen; Amaia opera Gernika inguruko Uarka zelaietan lehenaldia ziz aurketu zuten Eusko Ikasketarako Jaiotutako III. Biltzarrean; eta ezkontzeko jaiotutako irruiza gernikarra (Lorenzo Ispizua gernikarra) emazteztatu hartu zuen 1922.eko Uztailaren 7an, Izugarriko musikalaria bere katu ondoren, Madriden hil zen Guridi 1961.eko Apirilaren 7an.

Nicolas Ledesmarekin mendeurrenean Jesus Guridi bere birborearen aipamena egiten du gogoki, beronen mendeurreneko atariaren gauda eta. Ledesma eta Guridi, euskal musikari kalari ospatsuak gure goxetan izan bitartean.

**Jose Antonio ARANA MARTIJA**

*Entre los Centenarios de este año celebramos la muerte de Nicolás Ledesma García, aragonés nacido en Grisél en 1791, quien después de pasar conocido en Tarazona y Borja y de ser organulari en la Colegiata de Borja y en la Colegiata de Tafalla, se instaló en la Basílica de Santiago de Iruñea en 1830 para dedicar el resto de su vida a la música como organista, maestro de capilla y fundador de la Academia de Música Bilbaina. Llegada la época de su jubilación, no dejó su puesto a su yerno Luis Bidaola, natural de Segura, casado con su hija Celestina. Cuando Bidaola dejó su cargo para pasar a la orgánica de Iruñea hubo de llenar el vacío el voluntario Ledesma hasta que en 1867 vino a ocupar el puesto donostiarra José Antonio Santesteban, quien a su vez consiguió la instalación de un nuevo órgano de Tafalla cuando el puesto que cubrió el organista, Pedro Cándido Aguayo hasta 1870, en que, de nuevo, Pedro Cándido se hizo cargo de la responsabilidad de Santiago de Iruñea. Siguió tocando el órgano de Santiago de Iruñea en sus últimos años por José Luis Anzioso y Aureliano Valle, hasta que se jubiló definitivamente en 1882, a los 91 años, para fallecer el 4 de Enero de 1883.*